

BAZTERKERIAREN AURKA

Iparra eta hegoa, mundu bi



Lehen Hezkuntzako 3. zikloko materialak
Hizkuntzen Tratatua Bateratua



**HIZKUNTZEN TRATAERA BATERATUEN PROGRAMA
PROGRAMA DE TRATAMIENTO INTEGRADO DE LAS LENGUAS**

LHko 3.ziklorako materialak / Materiales para 3º ciclo de EP

PROIEKTUA / PROYECTO: Bazterkeriaren aurka

UNITATEAK: **Iparra eta hegoa, mundu bi. Mahai ingurua.**
UNIDADES: Conocer es crecer. Artículo de opinión.

ZUZENDARITZA ETA KOORDINAZIOA: Teresa Ruiz
DIRECCIÓN Y COORDINACIÓN:

SORTZAILEAK: Rakel Arrizabalaga
AUTORAS: Itxaropena Zaballa

KOLABORATZAILEAK: Mari Mar Pérez, Maribi Apraiz, Inmaculada Marcos y
COLABORADORES: asesores de Primaria

Berritzegune Nagusia (Bilbao)
Eusko Jaurlaritz. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
Gobierno Vasco. Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

MATERIAL HONEN JABETZA EUSKO JAURLARITZARENA DA
MATERIAL PROPIEDAD DEL GOBIERNO VASCO

2008ko urria
Octubre de 2008



0 SEKUENTZIA	MUNDUKO ESKOLAK	Nolakoak dira munduko eskolak? Eta guk zer dakigu? Ados jarriko gara.
1. SEKUENTZIA	INFORMAZIO BILA	1. jarduera. Glosategia, informazioa ulertzeko. 2. jarduera. Bi mundu, garatua eta azpigaratua? 3. jarduera. Nola neurtu aberastasuna? 4. jarduera. Zergatik nazio batzuk dira aberatsak? 5. jarduera. Zein da Euskadiren egoera? 6. jarduera. Nolakoa da? 7. jarduera. Zer egin genezake egoera hau hobetzeko?
2. SEKUENTZIA	ZER DA MAHAI- INGURUA?	8. jarduera. Zer da zer? 9. jarduera. Zertarako da mahai-ingurua?
3. SEKUENTZIA.	TESTUA AZTERTZEN	10. jarduera. Mahai-inguruaren berezitasunak. 11. jarduera. Galdera nola, erantzuna hala. 12. jarduera. Zenbat buru hainbat aburu. 13. jarduera. Zer dela eta zer dela? 14. jarduera. <i>Aunitz balio du indarrak, gehio buru azkarrak.</i> 15. jarduera. Entzun lehenengo, hitz egin hurrengo. 16. jarduera. Ni alde eta zu kontra. 17. jarduera. Uste dut eta ez dut uste.
4. SEKUENTZIA	TESTUA PRESTATZEN	18. jarduera. Zenbat hankako mahaia. 19. jarduera. Hiru hankako mahaia ondo finkatua. 20. jarduera. Ongi hasi, ongi bukatu. 21. jarduera. Ondo egin dugu? 22. jarduera. Nola egin dut lan?



0.SEKUENTZIA. MUNDUKO ESKOLAK

Munduko eskolak desberdinak dira eta bertara doazen ikasleak ere bai. Argazki hauetan ondo ikus daitezke herrialde batzuetan dauden eskolak.



1



2



3



4



5



6



7



8

<http://www.unicef.es/letras/eusker/actividades/FICHAentreimagenes.pdf>



Nolakoak dira munduko eskolak?



UNICEF-ek eskaintzen dizkigun argazkien erreferentziak honakoak dira, baina ordenatu gabe daude. Gai zarete talde txikian argazki bakoitza dagokion erreferentziari lotzeko? Hori egin eta gero, zuen ekarpenak talde handian adieraziko dituzue:

	Mostoleseko (Espainia) Maria Zambrano Ikastetxe Publikoko ikasleak informatika gelan. (Iturria: Hezkuntza Informazio eta Komunikazioko Zentro Nazionala)
	Rwandako eskola honetan, neska-mutilen kopuru handi samar batek espazio txiki bat betetzen du. (Press/ UNICEF)
	Neska-mutilak material tradizionalekin eraiki den Bangladesheko eskola batean. (Noorani/UNICEF)
	Nigerko neska-mutilek Afrikako eguzkipean ikasten dute. (Pirozzi /UNICEF)
	Ikasleak gerrak suntsitutako ikasgela batean idazten, Baukau-n (Ekialdeko Timor). (Alex Baluyut / World Bank Photo Library)
	Neska-mutilak Peruko eskola batean. (UNICEF)
	Neska-mutilak beren eskolako jolastokian jolasten Australian. (Iturria: Evatt Primary School delakoaren web-gunea)
	Pampiteko eskola, Quitoko kantoian (Ekuador) . (Belén Barbero/UNICEF)

Ados zaudete egin dituzuen loturekin?

Irudiak minutu batzuetan begiratu ondoren, izan duzuen lehen inpresioari eta argazkiek iradokitzen dizuetenari buruz hitz egin talde txikietan eta bete ezazue ondorengo taula zuen ustea adieraziz.



	Mostoles	Rwanda	Bangladesh	Niger	Ekialdeko Timor	Peru	Australia	Ekuador
Ondorengo zerbitzuak izango ote dituzte? Jantokia	X						X	
Autobusa eskolara joateko								
Edateko ona den ura								
Saneamendu egokia								
Ikasteko tresna aproposak								
Musika gela								
Heziketa Fisiko gela								
Zein da zure eskolaren antzekoa?								
Zein da ezberdina?								
Zein aukeratuko zenuke zuretzato?								

UNICEF-ek 1999an *Haurren Egoera Munduan* testuan ikastetxeek kalitatezko hezkuntza eman ahal izateko bete beharko lituzketen baldintzak ezarri zituen:

"Kalitatezko hezkuntza batek, haurrentzat ikastetxeak sormena, segurtasun eta eragingarria den gunea bilakatzea eskatzen du, edateko ona den urarekin eta saneamendu egokiarekin, irakasle motibatuekin eta ikasketa plan egokiekin, eta bertan haurrak errespetatuak izatea eta hauek besteak errespetatzen ikastea." (1999, UNICEF).

Eskola guztiak berdinak dira? Zuen ustez, zeintzuk dira eskola batek bete beharko lituzkeen baldintzak? UNICEFen adierazpena irakurri eta gero idatzi hemen behean taldekideen ekarpenak:





Eskolak bete behar dituen baldintzak:

Ikusi duzue, munduko eskola guztiek ez dituzte betetzen baldintza berdinak, denek ez dute zuek daukazuen moduko eskola bat. Gainera, egoera horri gehitu behar zaio munduko hainbat lekutan badirela eskolarik ez duten haurrak, lanera joatera behartuta daudenak, kale gorrian bizi direnak...

Eta guk zer dakigu?



Arrazoi asko daude eskolak desberdinak izateko. Arrazoi nagusia hau izan daiteke, nazio batzuk aberatsak direla eta beste batzuk, ordea, txiroak. Baina zer dakizue munduko aberastasunari buruz? Denon artean munduko aberastasunari buruz hitz egingo dugu.

Unitate honetan gai hori aztertuko dugu: munduko herrialdeen ekonomiaren berri izan, populazioa aztertu, eta antzemango dugu zergatik garen gero eta gehiago jatorri desberdinetakoak.



Informazioa hobeto
ulertzeko hitz berrien
zerrenda bat osatuko
duzue eta zuek
aukeratutako nazio bati

buruzko txostena idatziko duzue. Informazio hau erabilgarria izango da unitate amaieran gai horiei buruz proposa dizkizuegun azken ekoizpenak egin ahal izateko: mahai-ingurua euskara arloan eta



iritzi-artikulua gaztelania arloan.

**Ados jarriko gara.**

Unitate honetan jorratuko duguna hementxe dugu, zuen esku dago moldaketak egitea.

ZER EGINGO DUGU?	ZERTARAKO?	ZER IKASIKO DUGU?
Mahai-inguru bat egingo dugu.	Gai baten inguruan gure iritziak emateko.	Argudiatzeko estrategiak.
Herrialde baten gainean txostena.	Munduko horma-irudia egiteko.	Herrialdeen jardura ekonomikoek duten eragina beren garapen mailan eta migrazioetan.
Ekonomiari buruzko glosategia egingo dugu.	Informazioa hobeto ulertzeko.	Ekonomiari buruzko hitz ezezagunak.
Mapak eta grafikoak egin eta aztertu.	Informazioa ulertzeko eta azaltzeko.	Grafikoak eta mapak irakurtzen.
Mahai-inguruak aztertu.	Gure iritziak ematen jakiteko.	Nola egin mahai-ingurua.
Argudio-testuak aztertu.	Argudio-testuaren ezaugarriak definitzeko.	Argudio-testuaren ezaugarriak.
Jendaurrean nola hitz egin aztertuko dugu.	Mahai-inguruan nola jokatu jakiteko.	Jendaurrean hitz egiten.
Taldekiddeen iritziak kontuan izango ditugu.	Hitz eginez elkar ulertzeko.	Lankidetzaren harremanak hobetzen. Taldean eztabaidatzen.
Beste bizimodu batzuk aztertu.	Munduan dauden ezberdintasunak ezagutzeko	Elkartasunez jokatzeko.



Badakizu zer egingo duzun unitate honetan, lanean hasi aurretik lan hitzarmena proposatu nahi dizugu zeure burua hobeto antolatzeko. Saiatu galderak erantzuten:

✕ Data:

✕ Ikaslea:Irakaslea:.....

✕ Lan-hitzarmenaren iraupena:.....

✕ Lan egiteko nik ditudan oztopoak:.....

.....

.....

✕ Oztopoak gainditzeko hartuko ditudan neurriak:.....

.....

.....

.....

✕ Nork lagunduko dit?:

.....

✕ Nola berrikusiko dut lan-hitzarmena betetzen ari dela?

.....

.....

Lan hitzarmen hau beteko dudala adierazten dut

Ikaslea

Irakaslea



1. SEKUENTZIA INFORMAZIO BILA

1. jarduera. Glosategia, informazioa ulertzeko.



Sekuentzia honetan ekonomiari buruzko hamaikatzeko hitz berri aurkituko dituzue. Beltzez markatuta agertuko dira. Hitz ezezagunen definizioak bilduko dituzue **glosategian**. Edozein gairi buruz hitz egiteko edo idazteko ez da aditua izan behar, baina garrantzi handikoa da hitz egokiak erabiltzea eta informazioa izatea.



Edozein hizkuntzatan hitz bat definitzea bere esanahia edo izaera zehaztasunez azaltzea da. Euskaraz zein gaztelaniaz hitzak nola definitzen diren gogoratuko duzue. Horretarako, egitura bati jarraituko diogu. Euskaraz lehoiaren definizioa egiteko pausu hauek betetzen ditugu:

**Datu
bereizgarria**

- Hitzaren izaera azaltzen duen datu bereizgarria bilatuko dugu.

Adibidez: Felidoen familiako ugaztun eta karniborua

Lotura

- Ezaugarri bereizgarria eta multzoa lotzen dituen erlatiboazko esaldia erabiliko dugu, hortaz aditzari amaieran –n ipiniko diogu.

Adibidez: den

Multzoa

Zein multzokoa den edo zer c esango dugu.

Adibidez: animalia



Aztertu talde txikian beheko adibideak eta jarraian definitu itzazue proposatu zaizkizuen hitzak erduei erreparatuta:

Hitza	Datu bereizgarria	Lotura	Multzoa
Glosategia	Idatzizko obra baten bukaeran argitu edo definitzen	diren	hitzen zerrenda
Lehoia	Felidoen familiako ugaztuna eta karniborua	den	animalia
UNICEF (United Nations International Children's Emergency Found)	Gerrak suntsitutako lurraldeetako eta hirugarren munduko haurrei laguntzeko	sortu zen	Nazio Batuen Erakundea (NBE)
	Bi errail paraleloz osatuta, trenak ibiltzen	diren	bidea
jirafa			
ikatz			
euritakoa			





2. jarduera. Bi mundu, garatua eta azpigaratua?




Sekuentzia hau amaitutakoan herrialde edo nazio bati buruzko txostena idatziko duzue. Gero, gelako txosten guztiak mundu-mapa batean kokatuko ditugu eta eskola apainduko duzue zuen lanekin. Munduko lurralde batzuen egoera ekonomikoa eta baita bertan bizi direnena ezagutuko duzue hurrengo orrietan. Sekuentzian zehar aurkitu eta erabiliko duzuen informazioa zuek hautatuko duzuen herrialde baten txostena egiteko izango da.



Irakurri talde handian ondorengo testua eta munduan aberastasuna nola banatzen den ikusiko duzue. Jardueraren amaierako glosategian beltzez dauden hitzak definituko dituzue:

1. testua

Aberastasun-maila ezberdinak




Bamako, Maliko hiriburua

Gaur egungo zibilizazioak bi munduren arteko banaketa argi bat aurkezten du: **mundu garatua** eta **mundu azpigaratua**. Lehenengoaren aberastasunak bigarrenak bizi duen eskasia orokorrarekin kontraste egiten du. Egoera hau faktore ekonomiko, sozial, politiko eta historiko anitzen ondorioa da.

Azken mendean munduko ekonomiak sekulako aldaketak izan ditu. Bigarren Mundu Gerra amaitu zenetik, 1945 urtean, eta teknologiarik esker, industriak hazkunde ikaragarria izan du. Herri aurreratuenak, teknologia egokia zutenak, aberastu egin dira eta herri atzeratuak, berriz, askoz pobreako geratu dira, bere ekonomia suspertu ezinik.

Herrialde aberatsenak beren biztanleei behar duten guztia eta gehiago emateko industria eta zerbitzuak garatu dituzte. Beraiek ekoizten dituzte produktu eta zerbitzu horiek edo, bestela, beste herrialdeetatik inportatzen dituzte. Gainera, haiek dira nazioarteko erakundeen bidez, munduko ekonomiaren kontrola dutenak. Herrialde txiroetan, ordea, arazo larriak dituzte oinarritzko beharrak asetzeko: elikadura, osasuna, etxea, edateko ur garbia...





Esan daiteke mundua bi zatitan banatuta dagoela: aberatsa, **Iparraldea** (Europako herri industrializatuak, Estatu Batuak, Kanada, Errusia, Japonia, Australia eta Zeelanda Berria) eta txiroa, **Hegoaldea** (beste herrialde guztiak).


Baina aberastasuna nola dago banatuta biztanleriaren artean? Zeintzuk dira herrialde garatuen eta garapenaren bidean dauden ezaugarriak? Unitate hasieran sortutako galderei erantzun diezue? Testu honek argibide batzuk emango dizkizue.

2. testua

Aberastasuna nola dago biztanleriaren artean banatuta?



XXI. mendean, munduko jarduera ekonomikoak mundu osoa hartzen du, **merkatu globala** sortu da. Mundu osoa hartzen duen produkzio eta elkartruke sarea garatu da, nazioen arteko ezberdintasunen ginetik eta mugak kontuan izan barik.




Gaur egungo munduko aberastasunaren banaketak bidezkoa ez den errealitatea eskaintzen digu. Garatutako herrialdeen biztanleek, gutxi gora behera munduko populazioaren %20ak, aberastasun osoaren %82a dute. Beste biztanle guztiak,

5.000 milioi baino gehiago, geratzen den %18arekin moldatu behar dira, gainera hau ez da berdintasunez banatzen.


Munduko herrien arteko ezberdintasunak arintzeko asmoz, Iparraldea eta Hegoaldearen arteko laguntzak eta harremanak estutzea aldarrikatzen da nazioarteko erakundeetan.



Talde txikian, erreparatu munduko herrialdeen **garapen maila** adierazten duen ondorengo mapari. Sailkatu hurrengo zerrendako nazio horiek bere garapen mailaren arabera eta adierazi bakoitza non dagoen. Aldi berean, talde bakoitzak taulako azken lerroa beteko du aukeratu duen nazioaren informazioarekin.





ESTATUA	KOKAPENA		GARAPEN MAILA		
	Kontinentea	Puntu kardinalak	Goi maila	Erdi maila	Behe maila
Mozanbike					
Txina					
Amerikako Estatu Batuak					
Danimarka					
Filipinak		Asiako hego-ekialdean			
Burkina Faso					
Ekuador					



GLOSATEGIA	
Hitza	Esanahia
Mundu garatua	

3. jarduera. Nola neurtu aberastasuna?



Munduko aberastasuna eta garapen maila neur daitezke. Horiek nola neurtzen diren aztertuko dugu. Era horretan ezagutuko duzue zuen herrialdearen egoera zein den eta baita beste tokietan bizi direnena ere.



Testu honetan dauden hainbat hitz berriak izango direnez, talde txikian, astiro eta arretaz irakurriko duzue. Hitz berririk aurkituz gero, testuan bere definizioa bilatu eta azpimarratu behar dituzue. Amaieran, **glosategia** proposatuko zaizue.




3. testua

Barne Produktu Gordina eta Zazpien taldea



Nazio baten aberastasuna bere **Barne Produktu Gordinaren (BPG)** bidez neur daiteke, horrek herrialde baten jarduera ekonomikoa neurtzeko zuzeneko informazioa ematen duen zifra da. Nazio horretan ekoizten diren zerbitzu eta ondareen balio moduan definitzen da. **BPG** euro edota dolar moneta-unitateetan adierazten da.


Herrialde bateko bizi-mailaren beste adierazlea da **Errenta per capita** edo **Biztanleko Errenta**. Hori herrialde bateko biztanle bakoitzak sortutako errentaren batez bestekoa da.





Eragiketa hau eginez lortzen da: herri baten ekonomiaren aberastasun osoa zati herrialdeko biztanle-kopurua. Herrialde baten aberastasun orokorra gainerako herrialdeekin konparatzeko modua da.

$$\text{Errenta per capita} = \frac{\text{Aberastasun osoa}}{\text{Biztanle kopurua}}$$



<http://www.geografo.info>

Munduko Barne Produktu Gordinaren %50 baino gehiago bereganatzen duena *Zazpien taldea* (G7) izenekoa da eta munduko estatu industrial nagusiak dira partaide: Amerikako Estatu Batuak, Japonia, Alemania, Frantzia, Britainia Handia, Italia eta Kanada dira.



Herrialderik aberatsenek, G7koek adibidez, garapen bidean dauden herrialdeei dirua mailegatzten diete. Baina herrialde horien Barne Produktu Gordina baxua denez, ezin dituzte maileguak itzuli eta, horrela, zor handiak pilatzen dituzte. Horri **kanpo zorra** deritzo.

Giza Garapenaren Indizea

1992 arte herrialdeen aberastasuna BPGren bitartez neurtzen zen, baina aberastasun-maila ondo zehazteko **Nazio Batuen Erakundeak (NBE)** proposatu zuen **Giza Garapenaren Indizearen (GGI)** arabera sailkatzea. Horren arabera, aberastasuna sailkatzeko balio ekonomikoak beste faktore batzuekin konbinatu zituen.





Faktoreak ondokoak dira:

 jaiotzako bizi-itxaropena, bizi-itxaropenaren datuekin neurtuta.

 eskolatzeko-maila eta kulturaren eskuragarritasuna.


 bizitza maila egokia (BPG per kapita dolarretan neurtuta).

Faktore ekonomikoak erabiltzeak ezberdintasun sozial handiak zituzten herrialdeak maila berean jartzea zekarren. Horrela, Qatar **Biztanleko errentaren** arabera munduko sailkapenean 10. lekuan dago, baina GGIren arabera 35. lekuan dago; bitartean, Kanada BPGn 10. da eta GGIren arabera bosgarrena da.

Adierazlearen formula

$$\text{Giza Garapenaren Indizea} = \frac{\text{Bizi-itxaropenaren indizea} + \text{Hezkuntzako indizea} + \text{BPGaren indizea}}{3}$$

Grafikoan ikus dezakezue Euskal Autonomia Erkidegoaren kokapena munduko sailkapenean.



Giza garapenaren indizea 2007. Ranking

Iturria: Nazio Batuen Garapen Egitaraua (NBGE), Eustat





Dagoeneko munduko ekonomiaren gainean gauza berriak ikasi dituzue. Izan ere, hainbat hitz berriren jabe egiten ari zarete.



Glosategiarekin jarraitzeko, talde txikian lotu kontzeptu bakoitza dagokion definizioarekin eta sailkatu informazioa ataletan lehenago ikasi duzuen bezala:

Hitza	Datu Bereizgarria	Lotura	Multzoa
Biztanleko errenta Renta per capita			
Kanpo zorra Deuda externa			
Zazpien taldea (G7)			
Nazio Batuen Erakundea (NBE) Organización de las Naciones Unidas (ONU)			
Barne Produktu Gordina (BPG) Producto Nacional Bruto			
Giza Garapenaren Indizea (GGI) Índice de Desarrollo Humano			
Oinarrizko premiak Necesidades Básicas			



Munduko Barne
Produktu Gordinaren %
50 baino gehiago duten
estatuen taldea.

Herri batzuek beste
batzuei edo
nazioarteko bankuei
zor dien dirua.

Herrialde bakoitzean
pertsonek bizi-kalitatea
hezkuntza, osasuna eta
BPG kontuan hartuta,
neurtzen duen zenbakia.

Nazio baten jarduera
ekonomikoa
neurtzeko zuzeneko
informazioa ematen
duen magnitudea.

Munduko estatu guztiek
osatzen duten erakunde
handiena.

Herrialde batek urte baten
ekoizten duen ondasuna,
zati populazioaren
zenbatekoa.

Bizitza duina izateko
(elikadura, ur edangarria,
osasuna, etxebizitza,
hezkuntza...) ezinbesteko
diren gutxieneko
baldintzak.




„Zure bizitzako lasterketa” **Intermon**



Ekonomiari buruzko informazioaren bila ibiltzen zaretenean grafikoak aurkitzea oso ohikoa izaten da. Horiek interpretatzea izango da ondorengo bi ariketen helburua.



Talde txikian, erreparatu grafikoei eta idatzi esaldien ondoan egia ala gezurra diren:



EGIA GEZURRA

Burkina Fasoko biztanleak oso gazte hiltzen dira.

Amerikako Estatu Batuek GGI-baxua dute.

Burkina Fasoko aberastasuna oso handia da.

Euskal Herriko bizi-itxaropena oso baxua da.

Euskal Herria GGI-aren araberrako sailkapenean goiko postuetan dago.

AEB-n bizi-itxaropena altua da.

Munduko aberatsenetako herrialde bat AEB da.

Euskal Herrian ez dago bizi kalitate onik.

Burkina Faso herrialde azpigaratuen multzoan dago.

Mexikoko bizi-itxaropena handia da.


AEB-etako bizi-kalitatea oso ona da.




Herrialde batzuen Biztanleko Errenta ekarri dizuegu taula horretara.

Zuek, talde txikian, grafiko batzuen bidez adieraziko dituzue.

Grafikoak oso erabilgarriak dira nazio bakoitzaren aberastasuna zenbatekoa den ikusteko. Azken laukitxoan idatz dezakezue zuek hautatu duzuen nazioaren datua eta grafikoan kokatu.

Barne Produktu Gordina Biztanleko		
Biztanleko Errenta		
	Txina	6.757 \$
	Niger	1.128 \$
	EAE	34.026\$
	Amerikako Estatu Batuak	41.890 \$
	Burkina Faso	1.213 \$
	Ekuador	4.341 \$
	Mali	1.033 \$

Iturria: Eustat. GGI eta NBGP-United Nations Development Programme. Human Development Report 2006



Aukeratu duzuen herrialde horren ekonomiari dagokionez, bere Barne Produktu Gordina eta Giza Garapenaren Indizearen gainean informazioa bilatu beharko duzue talde txikian; ikasi duzuenaz, datu hauek ezinbestekoak dira aberastasuna eta garapen maila azaltzeko. Informazioa ondorengo web gunean aurki daitezke:

http://www.eustat.es/elem/ele9999900/tbl9999904_e.html



<http://www.jalgi.com/atlasa/estatuak.html>

http://eu.wikipedia.org/wiki/Giza_Garapen_Indizea

Beraz, hurrengo laukian idatzi hautatu duzuen nazioaren:

- ✓ Barne Produktu Gordina (BPG)
- ✓ Biztanleko errenta
- ✓ Giza Garapenaren Indizea (GGI)
- ✓ Kanpo zorra



.....-k daukan aberastasuna honela azal daiteke:

Herrialde horren Barne Produktu Gordina..... \$-koa da. Aberastasun hori zatitzen badugu hango biztanleriaren artean Biztanleko Errenta \$-koa da; Euskadikoa bainogoa.

.....ko beste datu batzuk kontuan hartuz gero (osasuna, bizi-esperantza eta kulturaren eskuragarritasuna) Giza Garapen Indizeada. Munduko garapenaren sailkapeneangarren postuan dago, hortaz garapen mailakoa dauka.

.....urteanko kanpo-zorra.....koa izan zen.

4. jarduera. Zergatik dira aberatsak nazio batzuk?



Jadanik, txostena osatzeko informazioaren atal bat aurreratu duzue; ondorengo testuan azaltzen da toki bateko jarduera ekonomikoek duten erlazioa bertako biztanleekin eta aberastasunarekin.



Azpimarratu, talde txikian, bi paragrafo hauetan esaldi garrantzitsu bana.

4. testua

Baliabideak eta jarduera ekonomikoak

Herrialde baten aberastasuna guztiz lotuta dago bere garapen ekonomikoarekin. Ekonomia zenbat eta indartsuagoa izan, herri horretako biztanleak orduan eta hobeto bizi dira, hobe dute bere bizi-maila.

Ekonomia historiaren hasieratik gizakiaren jarduera bereizgarrienetarikoa izan da. Gizateriak naturatik baliabideak atera, aldatu eta banatzen ditu. Honela, produkzio eta truke sare oso korapilatsua sortu du. Sare honek gizarteari forma ematen dio eta neurri handi batean gertakari sozial eta

politikoak eratzen ditu.



Salerosketa harremanak gure hirigunetan Erdi Aroko baxuerliebea



Nazio bateko jarduera ekonomikoak zerikusi handia dauka bertako baliabideekin, baina zer dira baliabideak? Zeintzuk? Zertarako?...



Talde txikian, azpimarratu ondoko testuan galderei erantzuten dizkieten esaldiak:

BALIABIDEAK



ZER DIRA BALIABIDEAK?

ZEINTZUK DIRA?

ZER GERTATZEN ARI DA GAUR EGUN?

ZER DELA ETA GERTATZEN DA?

NOLA KONPON DAITEKE ARAZOA?

5.testua

Baliabideak eta populazioa

Baliabideak natura ingurune jakin batean dauden aberastasunen multzoak dira, hau da, jatorri naturaleko lehengaien iturriak dira.

Baliabide iturri asko dago:

-  Baliabide **mineralak**
-  Baliabide **begetalak**
-  **Animalia**- baliabideak
-  **Energia**-baliabideak
-  **Giza** baliabideak
-  Baliabide **fisikoak**



Mendeetan zehar gizateriak eskuragarri zituen baliabideak erabili ditu eta ingurugiroarekin oreka mantendu du. Baina gaur egungo munduak etengabe hazten den populazio jasaten du. Populazioaren tamaina eta neurritz kanpoko kontsumoa dela eta, energia eta lehengai kopurua agortzen ari da.




Baliabide iturrien etengabeko ustiaketaren eta horien agortzearen inguruko hainbat adibide dago: Ekialdeko Mediterraneoko lurak, non gure zibilizazioa sortu baitzen, gaur egun ia basamortu bihurtu dira. Tradizioz aberatsak izan ziren arrantza-gune batzuk antzu geratu dira XX. mendean zehar.

Beste adibide bat energi-iturrien agortzea da: munduan erabiltzen diren energi-iturri nagusiak ikatza eta petrolio dira eta hauek ere arrisku horretan daude.

Prozesu honek gaur egun jarraitzen du baina erritmo biziagoan XX. mendean zehar bizi izandako populazioaren hazkuntzaren ondorioz. Baliabideen gestio egokia izan daiteke arazo honen irtenbidea.

Munduko ikatz eta petrolio baliabideak



www.geografo.info/



Talde txikian, ondorengo testua irakurri eta amaieran aurkituko duzuen eskema kontuan harturik, laburpena egingo duzue eta bertan ideiak garrantzitsuak bilduko dituzue:



6. testua

Jarduera ekonomiko mota ezberdinak

Jarduera ekonomikoa mota askotakoa da eta erlazio ezberdinak ditu. Tradizionalki ekonomiaren banaketa sektoreka egin da:



Lehen sektore ekonomikoa edo lehen sektorea besterik gabe



ekonomiaren hiru arloetako bat da. Naturak ematen dituen moduan hartutako, jasotako, lortutako, ateratako lehengaiak eta inongo eraldaketarik jasan ez dutenak biltzen ditu. Sektore honetakoak dira: arrantza, nekazaritza, meatzaritza, abeltzaintza,

basogintza eta abar. Lehen sektorea nagusi da gutxi garatutako ekonomietan.



Bigarren sektorea: lehengaien eraldaketarako jarduerak biltzen ditu: industria, artisautza eta eraikuntza. Munduko herrialde garatueta daude industria gune nagusienak.



Hirugarren sektorea: zerbitzuez arduratzen da eta baliabide naturaletan zuzenean oinarritzen ez direnak: merkataritza, zerbitzuak (osasuna,



garraioak eta abar), turismoa, banka eta finantza jarduera. Munduko herrialde aberats eta garatueta sektore garrantzitsuenak da. Are gehiago, herrialde hauetariko askok, ia baliabide naturalik gabekoak, hala nola Holanda,

beraien bizi-maila altua mota honetako jardueretan oinarritzen dute.



Idatzi hemen bildutako ideia nagusiak:

JARDUERA EKONOMIKO MOTAK

Nola egiten da ekonomiaren banaketa?

Zein da banaketa hori?

Zer egiten da?

Lehen sektorea

Biltzen dituen
jarduera motak

Ze garapen
mailarekin
lotzen da?

...sektorea

Zer egiten da?

Biltzen dituen
jarduera motak

Ze garapen
mailarekin
lotzen da?

...sektorea

Zer egiten da?

Biltzen dituen
jarduera motak

Ze garapen
mailarekin
lotzen da?




Hemen bilduko duzue zuen taldeko glosategia. Ekonomiari buruz hitz egiteko edo idazteko ez zarete zertan adituak izan behar, baina garrantzi handia dauka hitz egokiak erabiltzeak. Adostu zuen artean hemen bilduko dituzuen hitzak, alfabetikoki ordenan idatzi eta azaldu zuen berbak erabiliz. Amaitutakoan gelako horman, blogean edo eskolako webgunean eskegi dezakezue:

Hitza	Esanahia



Beheko mapan erakusten dira munduko industri gune nagusiak. Talde txikian, mapa baten laguntzaz idatzi herrialde horien izenak.



Beheko kontzeptu hauek herrien garapenarekin estu lotuta daude. Dagoeneko aukeratu duzuen herrialdearen ezaugarriak ondo ezagutzen dituzue.



Gai izango zinateke, bakarka, diagrama hauetan kontzeptu hauek sailkatzen?

Seguru

baitez!

Industrien gabezia, hirugarren sektorearen garapena, baliabideen eskasia, bizitza-maila baxua, Barne Produktu Gordina txikia, lehen sektorean oinarritutako ekonomia, Barne Produktu Gordin handia, populazioaren zahartzea, bizi-maila altua, baliabide eta energia-kontsumo handia, populazio hazkunde handia, jaiotza-tasa handia, industrializazioa.



HERRIALDE AZPIGARATUA




HERRIALDE GARATUA



"Estatistiken arabera, pertsona batek mila dolar jasotzen baditu, eta beste batek ezer jasotzen ez badu, hauetako pertsona bakoitzak 500 dolar jasotzen ditu sarrera moduan per capita datuetan".

Eduardo Galeano





Idatz ezazue, talde txikian, ondorengo laukietan baliabideei eta jarduera ekonomikoari buruzko informazioa, hau da, zeintzuk diren toki horretan ustiatzen dituzten baliabideak, garatu diren sektoreak.... Informazio hori topatzeko jo dezakezue atlasera edo entziklopediara, paperezkora zein digitalera; hona hemen aukera batzuk:

Hiztegia

Internet

Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa ELHUYAR

<http://www.erabili.com/lantresnak/hiztegiak/harluxet>

LUR Hiztegi Entziklopedikoa

<http://www.jalgi.com/atlasa/default.html>

<http://www.hiztegia.net/>



.....*ko baliabideak eta jarduera ekonomikoak:*

Lurralde honetan dauden baliabide nagusiak hauexek dira:

.....

.....

Bertako ekonomiasektorean oinarrituta dago, beraz,..... herrialdea.....da.



5. jarduera. Zein da Euskadiren egoera?

Eta zein ote da Euskal Autonomia Erkidegoren gaur egungo egoera? Nolako jarduera ekonomikoak garatu dira azken urteotan? Zein da beraren garapen maila? Konpara zenezakete zuek hautatu duzuen herrialdearekin? Badakizue zeintzuk diren etorkinen arrazoiak gure artera bizitzera etortzeko? Beheko testu, taula eta grafikoak lagungarriak izango dira Euskadik duen egoera ezagutzeko eta gaztelania arloan txostena egiteko.



Talde txikian bete ezazue Euskadik duen ekonomiari dagokion fitxa:

7. testua

Euskadiko ekonomiaren bilakaera

Azken hogeita bost urteotan, aldaketa handiak gertatu dira Euskadin, lehen gure ekonomia industrian oinarritzen zen eta gero, arrazoi batzuegatik, zerbitzuetako sektorerara pasatu zen.

Euskadiren garapen ekonomikoa izan dituen baliabide naturalei esker gertatu da. Baina industriari bultzada handiena eman ziona burdina izan zen. Horren ondorioz, gaur egun makinak, material elektrikoa eta elektronikoa ekoizten ditu. Nahiz eta beste herrialde batzuekin konparatuz garrantzi handikoak ez izan, Euskadik baliabide hauek ustiatzen ditu: arraina, mahatsa, zerealak, azukre-erremolatxa, patata eta pinua.

1975ean, 2.075.000 biztanle zeudenean, barne-produktu gordina 18.030 milioi eurokoa zen, batez ere industriak sortua, biztanleria aktiboaren %50 baino gehiagori ematen baitzion lana sektore horrek.

Hogeita bost urte geroago, eta antzeko biztanle-kopurua badugu ere, BPG ia bikoiztu egin da (34.859 milioi eurotara iritsi da), batez ere zerbitzuen sektoreak izan duen gorakadaren ondorioz; izan ere biztanleria aktiboaren %60 enplegatzen du.






Taula honetan ikus daiteke lana sektoreka nola zegoen banatuta 2002 urtean.

Langileak sektoreen arabera 2002an Euskadin

Nekazari- arrantza	%1,76
Industria	%28,39
Eraikuntza	%9,19
Zerbitzuak	%60,66



2007an munduko herrialdeen Giza Garapenaren Indizean (GGI) Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) hirugarren dago Islandiaren eta Norvegiaren atzetik, Eustatek (Euskal Estatistika Erakundea) landutako datuen arabera. Australia, Kanada, Suedia eta Irlanda daude ondorengo postuetan, eta Sierra Leona, Burkina Faso eta Guinea-Bissau azken postuetan.

Dakizuenez, Giza Garapenaren Indizea Nazio Batuen Erakundeak kalkulatu du 178 herrialdeetarako. Indize hori herrialde askoren gaineko informazioa eduki ahal izateko eta konparatzeko erabiltzen da.

<http://www-org.eitb24.com/berria/eu/-tik-egokituta>



Euskadiko ekonomia

Barne Produktu Gordina

Biztanleko Errenta:

Giza Garapenaren Indizea:

Baliabideak:

Sektore nagusia:



6. jarduera. Nolakoa da?



Aukeratu duzuen herrialdearen txostena populazioa eta ekonomiari buruzkoa izan da. Gaztelania eta euskara arloetan poliki-poliki bildu duzue informazioa. Testua idatzi baino lehen, talde txikian hausnarketa egin eta edukia adostuko duzue. Hurrengo gidoia lagungarria izango da:

- ☐ Zertarako da testua?

.....

- ☐ Nork idatziko du?

.....

- ☐ Nork irakurriko du?

.....

- ☐ Zeintzuk dira garatuko dituzuen atalakko egoera azaltzeko?

.....

.....

.....

- ☐ Zeintzuk dira azalpen-testua idazteko kontuan edukitzekoak?

☐ Gure iritzia emango dugu.

☐ 1. pertsonan idatziko dugu.

☐ Orainaldian idatziko dugu.

☐ 3. pertsonan idatziko dugu.

☐ Informazioa jakinaraziko dugu

☐ Lehenaldian idatziko dugu.

- ☐ Nola bideratuko ditut zailtasunak?

Zer ez dut ondo ulertu?	Biztanleko errenta zer den				
Zer egin dezaket zalantzak argitzeko?	3. testua errepasatu edo andereñoari galdetu.				



Zuen lana amaitzeko, orrialde batean edo ordenagailuaren bidez txukun-
txukun bildu dezakezue euskara eta gaztelania arloetan atera duzuen
informazio guztia aukeratu duzuen herrialdearen txostena osatzeko. Dena
amaitzen duzuenean eskolako webgunean edo bloggean jar dezakezue edota
ikaskideei erakutsi ahal diezue pasabidean eskegirik.

7. jarduera: Zer egin genezake egoera hau hobetzeko?



Nazioen arteko ezberdintasun ekonomikoak zailak dira konpontzen. Baina ba
al dago biderik munduko desoreka leuntzeko? Ezagutzen duzue laguntza
ematen duen pertsonarik edo talderik? Eta zuek zer egin dezakezue?



Ondorengo testuetan azaltzen dira herrialde pobreak laguntzeko egiten
diren ahaleginak. Irakur itzazue testuak talde txikian eta gero pentsatu
zuek zer egin dezakezuen munduko ezberdintasunak leuntzeko:

8. testua

Laguntza ofizialak



Nazioarteko laguntza herrialde txiroenen garapenean laguntzeko
oinarrizko tresna bat da. Laguntza ofizial hauek, zergeetatik datorren diru publikoarekin
finantzatutak, nazioen arteko solidaritatea erakusten dute eta modu ezberdinetan ematen
dira:

- **Laguntza ekonomikoa:** putzu, errepide edo industrialdeak sortzea bezalako proiektuetara bideratutako diru maileguak.
- **Laguntza teknologikoa:** teknologia, makinaria eta beste tresna modernoak uztea, garapen eta hazkuntza ekonomiko prozesuan laguntzeko.
- **Giza laguntza:** modu ezberdinetan ematen da. Pertsona asko garapen bidean dauden herrialdeetara joaten dira laguntza zuzenean emateko. Gurutze Gorria, Ilargi-erdi Gorria, edo Eliza katolikoa (misioak).



Gobernuz Kanpoko Erakundeak (GKE)

GKE nazioartean erabiltzen den terminoa da, eta siglek Gobernuz Kanpoko Erakundeak esan nahi dute. GKEak erakunde instituzionalekin loturarik ez duten pertsona taldeak dira, batera lan egiten dute, eskuzabal, solidaritatezko helburu bat lortzeko, hau da, komunitatearen onurarako eta irabazi asmorik gabe.

© UNICEF/HQ07-0108/Thierry Delvigne Jean

Mundu osoan zehar GKE asko daude, ekintza ezberdinetara zuzenduak. Horien artean aipagarrienak hauek dira:

- **Amnistia Internazionale:** giza eskubideen alde borrokatzen du eta planeta osoko demokrazia defendatzen du.
- **Greenpeace:** ingurugiroa babesteko lan egiten duen nazioarteko erakunde ekologista.
- **Medicus Mundi:** azpigaratutako herrialde askotan lan egiten duten medikuen taldea, batez ere hondamendiak gertatu diren eta gudak dauden lekuetan. Talde profesional askok imitatu dute beraiek egiten dutena.




Euskadiko GKE nagusiak

Euskal Herrian ere garapenerako GKE ugari ari dira lanean, garatu gabeko herrialdeetako bizi-baldintzak hobetu nahian dabilta.

Gobernuz Kanpoko Erakunde batzuk Euskal Herrian: **Hirugarren Mundua eta Bakea, Mugarik gabe, RASDaren lagunen elkartea, Alboan, Munduko Medikuek, Intermon-Oxfam, Gurutze Gorria, Unesco etxea, Haurralde, SOS Arrazakeria, Caritas...**



Gure proposamenak desberdintasunak leuntzeko:



Jaso dituzuen ideia guztiak horma-irudi batean biltzea edo eskolako webgunean kokatzea proposatzen dizuegu, horrela ezagutzera emango dituzue bilatu dituzuen irtenbideak munduko desberdintasunak arintzeko.

Sekuentzia honetako testuak iturri hauetatik egokitu dira:

<http://www.hiru.com>,

Mundua eta bere ezagutza,

**Gazteentzat Entziklopedia Ilustratua
(Ttartalo)**

Azaleko irudia eta barrualdeko beste batzuk
Eneko Gonzalez Yagüerenak dira



2. SEKUENTZIA

ZER DA MAHAI-INGURUA

8. jarduera. Zer da zer?



Unitate honen hasieran munduko hainbat eskola aztertu dituzue eta atzeman diezue ezberdintasunen arrazoi nagusiei. Herrialde batzuetan bizi diren pertsonen egoera zein den jakiteko txostena egin duzue eta unitate amaieran egingo duzuen **mahai-inguruan** eta **iritzi-artikulu**an zuen iritziak emateko informazioa nahikoa hartu duzue. Baina nola erabiliko duzue informazioa? Nola emango duzue iritzia? Nola bideratuko dugu mahai-ingurua? Zeri buruz eztabaidatuko dugu? Zer da mahai-ingurua? Zer iritzi-artikulu?



Horien erantzunak jakiteko mahai-inguru baten bideoa ikusiko duzue, gerotxoago, denon artean, galdera hauek erantzungo dituzue:

Ikusikas Denbora Librea mahai-ingurua



Zer da programa hau?	
Non eta noiz ikusi ahal izan zen?	
Nola hasi da solasaldia?	
Zer egin dute solasaldian?	
Zeintzuk dira solaskideak?	
Denek iritzi berbera dute gai horri buruz? Zergatik?	

Eta zuek egon zarete inoiz mahai-inguru baten?

Entzun duzue inoiz irratian horrelako programarik?

Eta telebistan?

Zure herrian egin da horrelakorik?



MAHAI-INGURUA

Ura: Urdaibaiko ibai-sarea
Kutsaduraren eragina eta erreka
berreskuratzeke abian diren proiektuak



Otsailak 15 (barikua) - 19:00
Elai-Alai aretoa (Gernika)

- Iñaki Antigüedad (Geologiaren doktorea, DGI-ko katedraduna, Hidrogeologiaren aditza).
- Tomas Morales (Geologiaren doktorea, DGI-ko irakaslea, Hidrogeologiaren aditza).
- Joserra Diez (Biologiaren doktorea, EPI-ko irakaslea, Bar-ekologiaren aditza).
- Kiko Alvarez (Biologiaren doktorea, Ekologiaren aditza, Urtekoeko Nazionalakko zuzendakia).

**SOS
MUXIKA**

info@sosmuxika.net - www.sosmuxika.net

Aldizkariak














Nazio Batuetako Garapenerako Programaren (NDP) GIZA GARAPENARI BURUZKO 2007 - 2008ko TXOSTENA

‘Klima-aldaketari aurre egiten: elkartasuna mundu zatiitu honetan’

2008ko martxoaren 11ean, asteartea, 18:30etan, Arrasateko kultur Etxean (Azoka kalea 1)

MAHAI INGURUA

UNESCO Etxeko, Arrasateko Udalak eta Goiena Komunikazio Zerbitzuakkin batera, atsegin handiz gonbidatzen zaizkizu Giza Garapenerako buruzko 2007 - 2008ko txostena ‘Klima Aldaketari aurre egiten: Elkartasuna mundu zatiitu honetan’ aurkezteko aukeratzat burutuko dugun mahai-ingurua.

Mahai inguruan partaide izango dira:


- Iñaki Antigüedad jauna, EHUKo Hidrogeologiko Inakaleko katedraduna.
- Gorka Bueno jauna, EHUKo Ingurairitza Goi Eskola Teknikoko irakaskia.
- Izaro Basurko jauna, IHOBE-Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoko teknikaria.
- Jose Sanz jauna, UNESCO Etxeko Ingurumen Salako arduraduna.

Mahai ingurua bertaratan diren txosteneren laburpenaren aurkezazko bertariko eskuratzeko aukera izango dute. DOAKO SARRERA. Bertaratzeko asmoa martxoaren 7a baino lehen konfirmatzea eskatuko dugu.

bona emateko eta informazio gehiago lortzeko:
UNESCO Etxea • Tel. 944275432 • linkuaziti@unesco.org • www.unesco.org



Denon artean ezagutzen dituzuen eztabaidatzeko saioak idatzi ondorengo taulan:

SAIOA	MODERATZAILEA	SOLASKIDEAK	GAIA
 Ordu Txikitan	Mikel Elizegi	Umeak	
 Kalaka		Nagusiak, gaiari buruz dakitenak	Zeresana ematen duten gaiak

Mahai-inguruan zer egin eta zer ez egin hobeto jakiteko prestatu dugu ondorengo jarduera hau; ariketa horren bidez hobeto ulertuko duzue zer egin behar izango duzuen zuen txanda denean.



Jarduera hau bakarka egingo duzue. Ondorengo taulan entrebistan eta mahai-inguruaren ezaugarri batzuk zerrendatu ditugu, gurutze baten bidez erabaki zeintzuk diren:





Zeri buruz hitz egiten da?	Mahai-ingurua	Entrebista
----------------------------	---------------	------------

☐ Denok iritzi berdina dugun gai bati buruz		
☐ Gai interesgarri bati buruz		
☐ Ukaezina den egia bati buruz		
☐ Ikuspegi ezberdinak dituen gai bati buruz		

Zertarako egiten da?	Mahai-ingurua	Entrebista
----------------------	---------------	------------

☐ Norbere edo besteen iritzia agerian jartzeko		
☐ Kosta ahala kosta besteen iritziak aldatzeko		
☐ Pertsona bakar baten iritzia ezagutzeko		
☐ Bizipenak kontatzeko		
☐ Zu eta zure ikuspegia ezagutzera emateko eta errespetatzeko		
☐ Besteak konbentzitzeko arrazoi egokien bidez		
☐ Entzulearen gustukoa dena esateko		

Nola jokatu behar da?	Mahai-ingurua	Entrebista
-----------------------	---------------	------------

☐ Ikuspegi ezberdinak eta iritzien trukea egon behar da		
☐ Iritzia eman behar da arrazoiak gaineratuz		
☐ Gehiago dakienaren iritzi berekoa izan behar da		
☐ Entzun eta entzun		
☐ Besteen iritzia entzun behar da haien ikuspegia ezagutu eta kontra edo alde hobeto egiteko		
☐ Iritzi desberdina dutenak mehatxatu behar dira		
☐ Mahai-ingurura joan iritzia zein den jakinda		
☐ Moderatzaileak bere iritzia eman behar du		
☐ Moderatzaileak solasaldia gidatuko du		





Zure taldekideekin jarraituko duzu lan honetan sakontzen eta horretarako adostu beharko duzue eta taula honetan idatzi mahai-ingurua dena eta ez dena:

	MAHAI-INGURUA DA	EZ DA MAHAI-INGURUA
Zeri buruzkoa da?		
Zertarako da?		
Nola jokatu behar da?		



9. jarduera. Zein testu mota da?



Badakizue mahai-inguru bateko solaskideek gai bati buruz hitz egiten dutela, solaskideek iritzia ematen dutela eta hori defendatzeko arrazoiak eman behar izaten dituztela. Euskara arloan, zuen iritzi-artikuluaren ere gai bati buruz daukazuen ikuspuntua arrazoituko duzue. Baina nolakoak dira testu mota hauek? Zertarako dira?



Hona hemen testu bi eta bideo bat, zertarako diren jakin nahi dugu. Talde txikian irakurri testuak eta ondoren agertzen diren ariketak egin:

9. testua

ABENA, Ghana, 13 urte

"Nire osabarekin eta haren emaztearekin bizi naiz. Banana frijituak saltzen ditut familiaren ekonomian laguntzeko. Oinarrizko hezkuntza pixka bat jaso nuen, baina ikasketak utzi behar izan nituen laguntza-faltagatik. Nire osabaren semeak, ordea, eskolara joaten dira. Batzuetan niri ere joatea gustatuko litzaidake, baina nire osabak ezin dituela eskolako gastuak ordaindu dio. Halere, 17 urte betetzen ditudanean joskintza ikasten lagunduko didala agindu dit... Eskolara ezin joan izateak penatzen nauen arren, beste batzuk baino zorte handiagoa dudala uste dut; gutxienez beste gauza batzuk ikasi ahal izango ditut, baina nola gustatuko litzaidakeen eskolara joatea!"

<http://www.unicef.es/letras/euskera/educacion4.htm>

10. testua

GHANA

Izen ofiziala: Ghanako Errepublika.

Populazioa: 22.931000 (2007).

Azalera (km2): 239.460

Hiriburua: Akkra (akkratar).

Hizkuntzak: ingelesa (ofiziala) eta kwa taldeko hainbat hizkuntza nigerokongoar.

Populazioaren banaketa lurraldean: % 35,8 hiritar, % 64,2 landatar.

Bizi-itxaropena gizonezkoetan: 58,3 urte (2007).

Bizi-itxaropena emakumezkoetan: 59,9 urte (2007).

Per capita errenta: 2.601 \$ (2005).

Kanpo-zorra: 6.000.000.000 \$

Baliabide nagusiak: Nekazaritza (kakaoa, artoa, manioka, batata eta artatxikia) eta zorupeko baliabideen ustiapena (urrea, diamantea, bauxita eta manganesoa).



<http://www.jalgi.com/atlasa/estatuak.html-wikipedia>

Ikusikas Denbora Librea mahai-ingurua






Zertarako dira hiru testu hauek? Asmo berdina dute hirurek?




Lotu taula honetan gezen bidez talde txikian irakurri dituzuen testuen izenburua, asmoa eta bakoitza zein testu tipo den ondorioztatu:

Izenburua	Zein da testuaren asmoa?	Testu Tipoa
ABENA, Ghana, 13 urte	Kontatzea	Argudio-testua
GHANA 	Iritzia ematea eta konbentzitzea	Azalpen-testua
DENBORA LIBREA IKUSIKAS bideoa	Informatzea	Narrazio-testua

Ikusi duzuenetz, testu batzuen asmoa zerbait kontatzea da, edo gehiago jakin dezagun zerbait azaltzea eta beste batzuen, aldiz, pertsona bakar edo talde baten iritzia ematea edo jarrerak aldaraztea.



Norbaitek gu konbentzitu nahi bagaitu edo bere ikuspegia azaltzen badu **argudio-testua** egiten du. Mota honetako testuak hainbat egoeratan erabiltzen dira egunero, etxean, kalean, telebistan, gurasoekin, lagunekin...





Ondoren, testu-genero ugari duzue. Horietako batzuk unitate honetan irakurri dituzue gaztelaniaz eta euskaraz, eta gainontzekoak oso ezagunak dira zuentzat. Pentsatu, talde txikian, testu horretako bakoitzak zein asmo duen eta kokatu beheko taulan testu-genero bakoitza dagokion tokian:

TESTU-GENEROA			
Asmoa		Asmoa	
☐	<i>Txiste bat</i>	☐	<i>Glosarioa</i>
☐	<i>Film baten laburpena</i>	☐	<i>Iritzi-artikulua</i>
☐	<i>Lagunarteko eztabaida bat</i>	☐	<i>Epaiketa</i>
☐	<i>Errezeta</i>	☐	<i>Entziklopedia</i>
☐	<i>Herrialde baten txostena</i>	☐	<i>Eleberria</i>
☐	<i>Mahai-ingurua</i>	☐	<i>Ipuina</i>

TESTU TIPOA	TESTU-GENEROA															
1- NARRAZIO-TESTUA																
Kontatzeko asmoa	.													.		
	.													.		
2- ARGUDIO-TESTUA																
Iritzia ematea eta konbentzitzeko asmoa	.													.		
	.													.		
3- AZALPEN-TESTUA																
Informatzeko asmoa	.													.		
	.													.		



Orain, talde handian, idatzi mahai-inguruaren ezaugarriak hemen behean. Atalez atal, talde bakoitzak adieraziko ditu bere ekarpenak eta idazkariak arbelean idatziko ditu. Ondoren, atal bakoitza adostu denon artean eta testua osatu:



Bazterkeriaren aurka

MAHAI-INGURU BATEAN



Moderatzaileak piztuko du eztabaida galdera baten bidez.

Mahai-inguruaren asmoa

..... buruz izango da.

Eztabaidarako gaia

izango da.

Solaskideak


Moderatzaileak

Ondoko irudian azeria eta Printze Txikia hitz egiten ari dira, bata bestea konbentzitu nahi du.

Nik nahi nuke, baina ez dut denbora askorik. Gauza asko ditut egiteko, lagun bat aurkitu, gauza berriak ezagutu...

Nire bizia beti bera da. Baina zuk hezten banauzu, ene bizia eguzkitsua izanen da. Zure urrats hotsak, musikak bezala zulotik kanpora deituko nau. Eta gainera begira! Han gari soroak ikusten dituzu? Nik ez dut ogirik jaten. Gariak ez du ezer balio enetzat. Eta hori triste da! Baina zuk urre kolorezko ileak dituzu. Zuk heziko naizunean zoragarria izango da! Urrezko den gariak zutaz pentsaraziko dit. Eta haizearen hotsa maitatuko dut...

Hezi nazazu!
Mesedez!



<http://www.euskalnet.net/jonetxe/printze/txikia.htm-tik> egokitua



3. SEKUENTZIA

TESTUA AZTERTZEN

10. jarduera. Mahai-inguruaren berezitasunak.



Euskaraz egingo duzuen mahai-ingurua eta gaztelaniako iritzi-artikulua, biak argudio-testuatuak dira, baina berdinak dira?



Ikusikas bideoko mahai-inguruaren transkripzioa irakurri eta talde txikian azpimarratu solaskideen iritziak.


11. testua

IKUSIKAS DENBORA LIBREA

Gazteek badute benetan denbora librerik?

-Nik uste dut baietz, orokorrean esanda bai; eta asteburuetan bereziki.

Egongo da jendea adibidez ingeniaritza, deretxo, kazetaritza ikasten dabilena, eta horrek ez du izango denbora libre askorik, baina orokorrean denbora librea badaukagula uste dut.



-Bai, ni ados nago, gainera uste dut, adituek horrela diote, denbora librea mundu guztiak daukala, daukagula, lanetik aparteko denbora guzti hori edo astialdia; gero, kontua izango da bakoitzak zertara dedikatzen duen astialdia hori, beste batzuekin ibiltzera edo umeekin ibiltzera, bai, bueno hori izango litzateke astialdia eta denbora librea, nik uste dut baietz.

-Nik uste dut baietz, gaurko gazteek badutela denbora libre bat, orain, aprobetxatzen duten edo ez, hori, euren kontua da, baina uste dut baietz.

-Orduan beharbada hor egongo litzateke arazoa, ez?, ez dakigu edo denbora librean edo beharbada denbora librearen erabilpenean. Nola ikusten duzu zuk?

-Ba bueno, ez dakit, jende asko dago ez duena aprobetxatzen, nik gutxienez asko aprobetxatzen dut, hori uste dut nik behintzat, uste dut aprobetxatu barik aspertu egiten dela. Agian, gusturago dago etxean kalean baino lagunekin eta.

-Zuk Cristina, denbora librerik badaukazu?

-Nik bai, denbora libre badaukat, baina uste dut denbora ondo antolatzen bada egunak gauza askotarako ematen duela.

-Zuk Mikel, begirale bezala, nola ikusten duzu gai hau?

-Nik uste dut denbora librea denok dugula, ez?, gutxi ala asko denok ; kontua da dauden aukeraketak aprobetxatzea, ze sarritan dituzu aukera pila. ez zara enteratzen zer duzun, eta orduan ez duzu aprobetxatzen, eta hori gertatzen da sarritan, denbora librea izan eta geratzen zara etxean edo telebista ikusten edo kalean gora eta behera beste gauza batzuetan ez zara sartzen informaziorik ez duzulako.



-Nik hor gauza bat ikusten dut, denbora librean, nik ez dakit aprobetxatu behar den ala ez. Nik uste dut denbora libre denok dugula eta bakoitzak egingo du bere denbora librean berak nahi duena. Aprobetxatzea da irizpide bat jartzea eta balore batzuk ematea. Nik, bueno, bai, uste dut oso baliagarria eta oso interesgarria dela eta jende askok egiten duena da elkartetara edo umeekin egotera dedikatzea, baina denbora libre edo bueno, astialdia, izatez bakoitzak irakurtzeko erabil dezake...aprobetxatzea den ala ez? nik hori alde batera utziko nuke, bakoitzak bere erara antolatuko du bere astialdia.

-Bueno uste dut denbora libre aprobetxatu litekeela era guztietan, telebista ikusten edo liburu bat irakurtzen; niretzako hori da denbora libre aprobetxatzea ere bai, ez kalean bakarrik lagunekin egoten, koadrilan mendira irteten...

-Bueno printzipioz ados gaude denok denbora libre hau badagoela eta gazteek badutela denbora libre.

Azpimarratu duzue? Nork esaten du azpimarratu duzuen? Moderatzailearen hitzak azpimarratu dituzue?




Talde txikian alderatu **Ikusikas** bideoa eta gaztelaniaz irakurri duzuen Juan Ramón Lucasen iritzi-artikulua. Hartarako, taulan dauden galderak erantzun eta gero bete laukitxoak:

Komunikazio egoera			Denbora libre mahai-ingurua	Artículo de opinión de Juan Ramón Lucas
Igorlea	☐ Nork ematen du bere iritzia?	☐		☐
Hartzailea	☐ Norentzat ematen da iritzia?	☐		☐
Eremua	☐ Non argitaratu da?	☐		☐
Kanala	☐ Ahoz idatziz ala egiten da?	☐		☐
Asmoa	☐ Zertarako da?	☐		☐

Aurreko testuan ikusi duzuenek, mahai-inguruan iritziak ematen dira, gaztelanian lantzen ari zareten iritzi-artikuluaren ere bai. Beraz, biak argudio-testuak dira, baina egoera komunikatibo desberdinei erantzuten dizkiete.



Bete ezazue denon artean ikasi duzuen:



Mahai-ingurua testua da.

Bere.....norberaren iritzia ematea edo inorena aldaraztea da.

..... gai bati buruz bere ikuspegia ematen dute eta
.....trukea egoten da. Mahai-ingurua
.....testua da.

**iritzi
ahozkoa
argudio
Igorleek
asmoa**

11. jarduera. Galdera nola, erantzuna hala.



Iritzi artikulu eta mahai-inguruen izenburuek beti galdera bati erantzuten diote. Mahai-inguruan moderatzaileak galderak egiten dizkie solaskideei haien iritzia agerian jartzeko. Solaskideek bere iritzia ematerakoan beti alde edo kontra izaten da. Galderak modu egokian adierazita egon behar dira; galderak nola egin behar diren ikasiko dugu jarduera honen bidez.



Ondorengo laukian batu ditugu www.ikasbil.net eta www.ikuspegi.org-etik zenbait iritzi-artikuluren izenburu. Batzuetan idazleak aldeko iritzia eman du, beste batzuetan kontrako iritzia eta beste batzuetan ez du alde batera ez bestera jo. Irakurri tituluak eta pentsatu denon artean iritzirik ematen den ala ez, ematen bada aldekoa edo kontrakoak diren eta zeren kontra edo alde egiten duen.

12. testua

_____ Berria · 24-05-2008 Kanpoko hizkuntzetan aberats	_____ Berria · 10-01-2008 «Nire haurrengatik egiten dut, ongi bizi daitezen»	_____ MySpace: hazi eta hazi ari den komunitate birtuala
_____ Berria · 25-06-2008 «Ez nintzateke berriro etorriko, damutu naiz»	_____ Berria · 14-05-2008 Beltz-tratulari berriak	_____ Marina d'Or: guztia ez da urre-kolore
_____ Berria · 18-06-2008 Emigratzea ez da delitu	_____ Teknozaborraren arriskuak	



Talde txikian idatzi zuen sailkapena ondorengo laukian:

ALDE

ZEREN ALDE

KONTRA

ZEREN KONTRA


EZ BATA EZ BESTEA

Neutroak



Iritzia adierazten duten izenburuak berriz idatziko dituzue baina orain galdera gisa, adibidean egin den bezala. Era honetan titulu berriek, galdera gisa daudenez, ez dute iritzirik adieraziko, **neutroak** izango dira:

Titularra	Neutroa Bai/ Ez	Titularra galdera bihurtuta	Neutroa Bai/ Ez
Kanpoko hizkuntzetan aberats		Aberatsak gara kanpoko hizkuntzetan?	



Moderatzaileak galderaegiten ditu.
.....aldeko edo kontrako.....
ematen dute.

**iritzia
neutroak
Mahaikideek**

12. jarduera. Zenbat buru hainbat aburu.



Argudio-testuetan gaia eta igorlearen iritziei erreparatuko diezue ariketa batzuen bidez. Iritziari beste izen bat ematen zaio ere: **tesia**.



Irakurri talde txikian testu hauek eta bilatu zeri buruz ari diren hitz egiten:

13. testua

Kontrolak UTIKAN!!!

Institutua hobetzeko kontrolak kenduko nituzke oso aspergarriak dira eta. Gainera, asko enpollatu behar da gainditzeko eta banaka jartzen gaituzte. Hortaz gain, ezin da kopiatu. Gainera, klaseetan bezala, puntuak kentzen dizkizute.

Matias

<http://irati.pnte.cfnavarra.es/iturpro/aldizkaria/blogs/tik> egokituta




GEHIENAK BORONDATE ONAREKIN HELTZEN DIRA

Ba, nik uste dut etorkin gehienak borondate onarekin heltzen direla, borondate ona bizimodua topatu nahi dutelako. Baina egoera desberdinak daude. Gutariko asko kultura gutxiarekin heltzen da, ez dakite ezer ere ez, esperientzia gutxi... Zerbait behar dutenean, hanka sartzen dute, gauza txarrak egiten dituzte, baina gehienek borondate ona daukate...(Teresa, Ekuatore Ginea, 26 urte)

BANKUAK EZ DIZU EZ DIRURIK EZ DU HIPOTEKARIK EMATEN

Pisu bat erostea ez da batere erreza; bankuak ez dizulako ez dirurik ez hipotekarik ematen etorkina izanda. Eskerrak nire senarraren nagusiak paper bat sinatu duela, abala edo ez dakit zer.... eta horrela erosi ahal izan dugu pisu hau.

(Luz, Kolonbia, 21 urte)





BAT-BATEAN, EZ DAKIZU EZER

Nik uste dut hona ailegatzean, bat-batean, ez dakizula ezer, dena ezberdina delako, hizkuntza, ohiturak, jatekoak... Inork ez dizu laguntzarik ematen. Esate baterako, ez dizu inork azaltzen zer den Euskal Herria, zein den gobernu...(Lin, Txina, 35 urte)

JASAN EZINA DA!

Jasan ezina da, oso zaila delako etxebizitza alokatzea eta zure diruarekin... Alokairua oso garestia da pertsona bakar batentzat, gainera janaria erosi behar duzu, ezin duzu dirurik aurreratu. Orduan nahita nahi ez pertsona gehiago sartu behar duzu etxean. Etxearen jabeak ez du nahi baina derrigortuta ikusten zara bi edo pertsona gehiago sartzera. (Ludmila, Ukraina, 46 urte)




www.ikuspegi.org

Matias	Nork esan du: <i>Matias</i> Galdera: <i>Zer egin daiteke institutua hobetzeko?</i> Gaia: <i>Institutua</i> Iritzia: <i>Kontrolak kenduko nituzke oso aspergarriak dira eta</i>
Teresa, Ekuatore Ginea	Nork esan du: Galdera: Gaia: Iritzia:
Luz, Kolonbia	Nork esan du: Galdera: ZER EGIN BEHARKO LITZATEKE INSTITUTUA HOBETZEKO? Gaia: Iritzia:



Lin, Txina	Nork esan du: Galdera: Gaia: Iritzia:
Ludmila, Ukrania	Nork esan du: Galdera: Gaia: Iritzia:

Argudio-testu batean asmoa argi eta garbi adierazi behar da, hau da, igorlearen iritzia ondo azalduta egotea funtsezkoa da. Gaztelaniako proiektuan ariketa baten bidez gaia eta iritzia (edo tesia) aztertu ondoren, desberdinak direla ikusi duzue.



Aurreko ariketan egin duzuen lanean oinarrituta, jarraian aztertuko dituzue galdera, gaia eta iritzia; antzeman beharko duzue iritzia ematen den eta esaldiek esanahia osoa duten ala ez. Talde txikian gurutze bat jarri dagokion tokian:


	GALDERA		GAIA		IRITZIA	
	Neutroa	Esanahi osoa duen esaldia	Neutroa	Esanahi osoa duen esaldia	Neutroa	Esanahi osoa duen esaldia
Matias	X	X	X			X
Teresa						
Luz						
Lin						
Ludmila						



.....neutroa eta esanahi osoko perpausa da.

.....ere neutroa da baina ez da esanahi osoko perpausa.

..... zerbaiten alde edo kontra egiten da eta esanahi osoko perpausa da.



Tesian

Gaia

Galdera

13. jarduera. Zer dela eta zer dela?



Aurreko jardueran pertsona batzuen iritzia jakin dituzue, horietako batzuk bere tesiari edo iritziari arrazoiak gaineratu dizkiote.



Ariketa honetan lehen eman diren arrazoiak bilatuko dituzue, azpimarratu eta ondorengo taula beteko duzue. Baliteke norbaitek ez gehitzea arrazoirik ematen duen iritziari, zein ote da?

NORK	TESIA (Iritzia)	ZERGATIK (Arrazoiak)
Matias	Kontrolak kenduko nituzke.	
Teresa	Etorkin gehienak borondate onarekin heltzen dira.	
Luz	Pisu bat erostea ez da batere erreza.	
Lin	Hona ailegatzean ez dakizu ezer.	
Ludmila	Pisu bat alokatzea oso zaila da.	



Beraz, mahai-inguruan gure iritziak ematean horiek defendatzeko arrazoiak erabili beharko ditugu. Arrazoiak **argudio** izena ere hartzen du, hortik datorkio izena argudio-testuari.

Baina kontuz! Argudioak aukeratzerakoan adi ibili behar gara eta horiek baliokoak izatea berebiziko garrantzia du daukagun asmoa lortzeko.



Esate baterako, gurasoek paga igotzea nahi dugu eta hori lortzeko beheko argudioak eman dizkiegu, batzuk pisutsuak dira eta beste batzuk balio gutxikoak dira, hau da, ez dute gurasoak konbentzitzeko pisu handirik. Zeintzuk dira? Denon artean sailkatu argudio hauek, garrantzitsuenari 5 eta garrantzi txikiena duenari 1 jarri:



Argudioak	Sailkapena
Nire lagunei paga handiago ematen diete	
Izozkia garestia da	
Denetarik erosi nahi dut	
Ezin dut dirurik aurreztu	
Paga honekin ez dago ezer erosterik	



Gai baten aurrean iritzi ezberdinak daude. Pentsa ezazue txakurtxo edo katutxo bat nahi duzuela eta etxekoen jarrera aldarazi behar duzuela. Zuen asmoa lortzeko, argudio egokiak erabili behar dituzuela ikasi duzue; baina zuen aurkariak erabiliko dituen arrazoiak aldeztu aurretik zeintzuk izango diren pentsatzen baduzue, zuen asmoa indartuko duzue.





Irakur ezazue **OTSOAK BABESTU BEHAR AL DIRA?** testua eta azpimarratu kolore batez otsoa akabatzeke erabili ziren arrazoiak, eta beste kolore batez otsoa babesteko azaltzen diren arrazoiak; ondoren, laukiak bete.

14. testua

OTSOAK BABESTU BEHAR AL DIRA?

Mendeak dira gizakiak otsoa ehizatzen duela, etsai arriskutsutzat duelako. Egia da, bai, otsoak gizakiak ehizatzen dituen animalia berak ehizatzen dituela eta artaldeak mehatxatzen dituela. Hala ere, elikatzeko baino ez du hiltzen. Ematen dituen baraualdi luzeek eraginda janaldi bakar baten 6 kilo haragi jatera irits daiteke.

Gizakiaren otsoarenganako gorrotoa iragandako gertakizun ikaragarriak eta beldurrek ere sortu izan dute. Adibidez, gerra garaian otsoek gizaki ahulduak irentsi izan dituzte. Baina kasu hauek erabat muturrekoak dira.



Otsoak amorruaren gaitza kutsatu zezakeela ikusi zuenean gizakiak ingurutik garbitzea erabaki zuen. Horregatik, 500.000 otso bakarrik gelditzen dira munduan. Zenbait espezie, Estatu Batuetako otso gorria kasu, hamarrenera murriztuak izan dira. Zoritxarrez, oraindik ere otsoen akabatze honek herrialde askotan berdin dirau, Errusian adibidez. Otsoak hainbestearino mehatxatu direnez, denbora gutxi barru desagertu daitezke.

Egia esanda, otsoak oso animalia beharrezkoak dira naturan, ahulduta edo gaixoturiko animaliak erasotzen baitituzte. Era horretara, “aukeraketa naturala” bultzatzen dute: animalia indartsuenek bakarrik bizi-iraun eta birsortzen dira.

Otsoak desagerturiko zenbait eskualdetan basahuntz kopurua neurri gabe hasiz oreka naturala hautsi izan dela ere egiaztatu da.

Geldi dezagun otsoaren akabatze basati hau. Behar beharrezkoa da neurriak hartzea basapiztia maitagarri hau babesteko.

(Environnement et vie aldizkaritik)



Zein da idazlearen iritzia? Testuaren zein tokitan ageri da?

Kopiatu hemen idazlearen iritzia:

.....

.....

Baina idazle honek bere ideia nagusia indartzeko animalia akabatzeko argudioei kontra egiteko ideiak batzuk gaineratu ditu. Zeintzuk dira? Irakaslearen laguntzarekin lortuko duzue zeintzuk diren jakitea, idatzi hemen:

OTSOAK BABESTEKO ARGUDIOAK

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

OTSOAK AKABATZEKO ARGUDIOAK

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

ARGUDIOEI KONTRA EGITEKO IDEIAK

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Eta zuek zer uste duzue? Zein da zuen iritzia? Zergatik? Zeintzuk dira zuen argudioak?





GURE USTEZ OTSOAK.....BEHAR DIRA

.....

.....

.....


.....



Pentsa ezazue Ghanako Abenaren egoeran zaudetela edota herrialde azpigaratu batean bizi zaretela eta sorterrria utzi behar duzuela zuen bizimodua hobetzeko. Baina ezer erabaki baino lehen ondo pentsatu behar duzue erabakiaren aldeko argudioak eta kontrakoak. Idatzi ondorengo laukietan pentsatu duzuen:

JOATEAREN ALDEKO
ARGUDIOAK

JOATEAREN KONTRAKO
ARGUDIOAK



Norberaren iritzia besteen aurrean defenditzeko


.....adierazi behar dira, horiek

.....izena ere hartzen dute, horrela

.....asmoa indartuko dugu.

Gai baten inguruan iritzi bat izan aurretik ondo

aldeko
argudio
arrazoiak
konbentzitzeko
kontrako

[illegible]



15. testua

AMA, ADOPTA DEZAKEGU TXAKURRA?

GETXO. INGURUGIROA. LAGUN EGITEKO ANIMALIENTZAKO UDAL ZERBITZUA

Zer egin behar dut animalia bat adoptatzeko?

- Etorri gure instalazioetara, ezagutu animaliak, eta eskatu nahi duzuna.
- Eskatzaileak adinduna izan behar du.
- Udal tasa ordaindu: 30€ katuak adoptatzeko, eta 60€ txakurren kasuan.

Aukeratu duzun animalia bizkarroiak kenduta, txertatuta, antzututa, garbi eta mikrotxiparekin emango dizugu.

Arazoren bat al duzu zure maskotarekin?

Bizikidetza, azpiegitura, ezjakintasun edo izaera arazoak al dituzu zure maskotarekin? Ez al dakizu zer egin?

LEUZak arlo guztietako aholkularitza emango dizu, animaliak eduki eta hezteari dagokion

Animaliak ez dira jostailuak... baina jostagarriak dira


Txakur edo katu bat adoptatzeak bi erantzukizun ekartzen ditu berekin. Batetik, animaliarekiko eta ingurua sozialarekiko erantzukizuna; izan ere, zaintza, denbora eta dirua behar dute, eta hezi egin behar dira, eragozpenik ez sortzeko.

Baina, bestetik, onura asko ere ekartzen dituzte. Maskotak zainduz gero norberaren estimua indartzen da, ariketa fisikoa egiten da, eta bakardade sentimendua arintzen da.






AMA, ADOPTA DEZAKEGU TXAKURRA?



Lortu duzu zeure asmoa? Uste duzu ama konbentzitu duzula?



Inoren iritziazen kontra jartzeko honelako hitzak erabiltzen ditugu:


Hala ere,

.....

.....



15. jarduera: Entzun lehenengo, hitz egin hurrengo.



Mahai-inguruan zein jendaurrean hitz egiteko **zer esan** behar dugun jakiteaz gain, **nola esan** behar den ere jakin behar da. Horretarako arau batzuk errespetatzea ezinbestekoa izango da. Goazen arau horietako batzuk ezagutzera.



Telebistako *Ordu Txikitan* programaren bideotxo bat ikusiko duzue eta hausnarketa egingo duzue ondorengo taulako galderak erantzunez:




Etixerako lanak

NOLA ESAN		BAI	EZ	BATZU ETAN
Jarrera 	Txanda eskatzeko besoa altxatu behar da?			
	Txanda errespetatu behar da?			
	Banan-banan hitz egin behar da?			
	Entzun behar diogu elkarri?			
	Erantzun behar diogu elkarri?			
	Aurkaria iraindu behar da?			
	Aurkariari hitza kendu behar zaio?			
Gorputza 	Gorputz jarrera egokia da?			
	Besoak, zangoak, burua.... etengabe mugitu behar dira?			
	Lasai egotea komeni da?			
	Aurpegira begiratu behar da?			
Ahotsa 	Hitz egiterakoan ulergarri egin behar da?			
	Esan nahi dena irakurri behar da?			
	Ondo ahoskatu behar da?			
	Hitz makuluak erabiltzen ditu? Baaa..., eee..., eske...zeee...?			



Orain, jendaurrean hitz egiteko arauak zeintzuk diren gogoan izan eta ondorengo lerroetan berridatziko dituzue:

	Gure Jarrera
---	----------------------------

	Gure Gorputza
---	-----------------------------

	Gure Ahotsa
---	---------------------------



16. jarduera. Ni alde eta zu kontra.



Jarraian, launaka etxean maskota eskatzeko egoera imaginatu eta antzestu egingo duzue bikotetan, bikote bakoitzak jarrera bat defendatuko du: bikote bat txakurra/katua eskatzen duena izango da eta beste bikoteak etxekoenezko jarrera defendatuko du.



Aukeratu lauron artean proposatzen zaizuen egoera antzesteko bakoitzak zer defendatuko duen,.

Orain, idatzi galdera eta defendatu nahi duzuen tesia.

AUKERATU DUGUN EGOERA
GALDERA
NIRE TESIA

Gero, bikote bakoitzak bilatuko ditu aurkariak konbentzitzeko argudioak.

NIRE ARGUDIOAK

.....

Aldeko argudioak
idaztean... arrazoiak
zerrendatu ostean,
sailkatu garrantziaren
arabera zenbakiak
jarriz. Gero argudio
horiek erabiliko dituzu
nahi duzun ordenan,
garrantzi handia
dutenak hasieran edo
alderantziz. Zuk
erabakiko duzu zer den
egokiena!

Zuen argudioak idatzi ostean beste bikoteari eskatu beraienak eta lau ki honetan kopiatu:



BESTE BIKOTEARENAK



Bukatzeko, zuen aurkariaren argudioei kontra egitekoak idatziko dituzue.

Kontrako argudioak

idaztean arrazoi berriak erabili beharko dituzu aurkariarenak ezeztatzeko, hau da, arrazoi bat ematen dizunean horri erantzuteko beste arrazoi bat eduki beharko duzu prest.


KONTRAKO ARGUDIOAK

17. jarduera. Uste dut eta ez dut uste.



Arituko zareten elkarrizketan zuen iritzia adierazteko esamolde jakin batzuk erabiliko dituzue; **Ikusikas** bideoaren transkripzioan solaskideek behin eta berriz errepikatzen dute esamolde berdina (joan orrialde horretara eta egiaztatu zein den).

Baina era askotan eman dezakezue zuen ikuspuntua, hemen dituzue beste esamolde batzuk:





Norberaren iritzia emateko esamolde eta hitz hauek erabiltzen ditugu:

Nire iritziz... **nire ustez...** **uste dut... -la**
askok uste dugu... **ez dut uste... -nik**
neure ikuspuntutik... **ni ez nago ados ...** **nire ustetan ...**

Uste dut...

Badakit...

Pentsatzen dut...

Iruditzen zait...

erabiltzen
dugunean,
aditzari **-la**
partikula
gehitu behar
zaio baiezko
perpausetan.



Ondorengo testuan forma hau behin eta berriz agertzen da, kokatu aditz bakoitza dagokion tokian. Horretarako lagungarria izango da aditz- zerrenda:

17. testua

EUSKO LEGEBILTZARRA

ITXAROPENERA KO OSOKO BILKURA
MUNDU HOBEA, KULTURA BETEA,
GIZATASUNEZ OPAROA

Xiomara
Lehendakaria

Zugazagoitia

Valverde



Orain Donostiako Mendiola Eskolako Adriana da Silva Rodríguez mintzatuko da.



(Portugesez hitz egin du)

Adriana da Silva Rodríguez - Bozeramailea

Elkarrekin bizi gara egunero gure eskolan hainbat lurraldetako neska-mutilak, eta elkarrekin ikasi dugu garrantzitsuena ez.....non jaioak garen eta zein hizkuntzatan mintzo garen. Orain lagunak gara eta ziur gaude adiskidetasuna geure artean egon daitezkeen alde guztiak baino garrantzitsuagoa.....Badakigu beste herrialde batera joaten direnek arazoak dituztelako, beren beharrianetarako lana behar dutelako eta beren familientzat egoerarik onena nahi dutelako emigratzen..... Baina etorkinei ez zaie beti harrera ona egiten. Askotan errefusatu egiten dira eta baztertu, besterik gabe, atzerritarak direlako. Eta pertsonak bidegabekeriak tratatzen ditugunean ahaztu egiten zaigu gizaki guztiak berdinak gure alde on eta txarrekin, gure poz eta itxaropenekin, denok egiten negar eta amets, eta denok izanpersona zoragarriak. Oraindik txikiak izan arren, Legebiltzar honi esan nahi diogu.....zerbait posible dena: gure ustez mundua hobea izan daiteke eta pertsonak zoriontsuagoak, baldin eta lurrak ematen dizkigun aberastasunak elkarren artean banatzen baditugu; baldin eta umeek egunero jatekoa, sendatzeko botikak badituzte, maiteko dituzten familia bat eta etxebizitza bat badute, bai eta eskola bat bertan lan egiten eta elkarbizitzen ikasteko.



Xiomara Zugazagoitia Valverde - Lehendakaria

Obrigado, Adriana.

[10http://www.parlamento.euskadi.net/mediaweb/html/index-c.html](http://www.parlamento.euskadi.net/mediaweb/html/index-c.html)

dela

gaitezkeela

dutela

garela

dela

badela

dugula



Ikusikas-en solaskideek esan dutena eraldatuko duzue ezezko formak erabiliz, adibidean egin den bezala:



Baina, **EZ dut uste** erabili behar dugunean aditzari **-nik** partikula gehitu behar zaio.

• -**Uste dut** mundu guztiak denbora librea daukala.

-**Ez dut uste** denok denbora librea daukagunik..

• -**Nik uste dut** gaurko gazteek asti librea *dutela*.

• -**Nik uste dut** egunak gauza asko egiteko ematen duela.

• -**Nik uste dut** batzuk aspertu egiten direla.

• -**Uste dut** denbora librea aprobetxatu litekeela

• -**Uste dut** oso baliagarria eta interesgarria dela

Antzezteko orduan gogoratu esamolde ezberdinak erabiltzeak zure diskurtsoa aberasten duela.




Jendaurrean aritzeko unea heldu zaizue, bakoitzak aukeratu duen pertsonaia antzeztuko du bere bikotekidearekin batera eta lauron artean elkarrizketa sortuko duzue ikaskideen aurrean pentsatu dituzuen argudio eta kontrako argudioak erabilita.

Ikaskideek, bitartean zuen jarduna ebaluatuko dute, kontrol zerrenda hau zer esan eta nola esan behar dugun baloratzeko da.



IZENA.....						
JARDUNA EBALUATZEKO KONTROL ZERREDA		BAI	HALA NOLA	EZ		
ZER ESAN DUGU		Konbentzitzeko asmoa argi geratu da?				
		Iritzi ezberdinen trukea egon da?				
		Bakoitzaren iritzia argia izan da?				
		Argudioak baliogarriak erabili ditu?				
		Ustea adierazteko esamolde ezberdinak erabili ditu?				
		Kontra egiteko esamoldeak erabili dira?				
		Gaiari eutsi dio?				
NOLA ESAN DUGU	JARRERA		Txanda errespetatu du?			
			Aurkariari hitza kendu dio?			
			Entzuteko jarrera izan du?			
			Aurkaria errespetatu du?			
	GORPUTZA		Gorputz-jarrera egokia da?			
			Gorputzarekin naturala izan da?			
			Lasai egon da?			
			Aurpegira begiratu du?			
	AHOTSA		Hitz egiterakoan ondo ulertu zaio?			
			Irakurri egin du?			
			Ondo ahoskatu du?			
			Hitz makuluak erabili ditu?			





4. SEKUENTZIA TESTUA PRESTATZEN

18. jarduera. Zenbat hankako mahaia?



Sekuentzia honen amaieran mahai-ingurua egingo duzue: nola egin, zein izango den bakoitzaren ardura, zer esan nahi duzuen...



Baina gauza asko izan direnez orain arte ikasitakoak jarduera honekin gogora ekarriko dituzue:


- ✗ Zertarako da mahai-ingurua? Nortzuk egingo dute? Norentzat izango da?
- ✗ Nola adierazi behar da ideia nagusia, tesia?
- ✗ Nola adierazi behar da galdera?
- ✗ Nola adieraz daitezke argudioak?
- ✗ Zertan oinarrituko dira zure argudioak? (Gogoan izan proiektuan ikasitakoa)
- ✗ Eta kontrako argudioak?
- ✗ Zeintzuk dira jendaurrean hitz egiteko arauak?
- ✗ Zer ez dugu ondo ulertu?
- ✗ Eta nola argituko ditugu zalantzak?



19. jarduera. Hiru hankako mahaia ondo finkatua.



Gure mahai-ingurua finkatua izateko hiru hanka beharko ditu: galderak, tesia eta argudioak; izan ere hirurak beharrezkoak dira. Urratsez urrats joango gara.



Jaun-andreok: Berriz bildu gara mahai honen inguruan arduraten gaituen gai bati buruz hitz egiteko. Dakizuenez azken aldi honetan gure herrixkak urrunetik etorritako lagunez bete dira. Horregatik gure artean ohitura berriak ikusten hasiak gara.

Zuen iritzia ezagutu nahi dut eta galdera bat dakart mahai honetara:

Ze ondorio dakar emigrazioak gure herriarentzat?

Mesedegarria ala kaltegarria da?

Nik uste dut...

Nik argi ikusten dut...

Edozein modutan ere...

Ni ez naiz iritzi berekoa, nik nahiago dut...

Zalantzarik gabe...

Onartzen dut...

Hala eta guztiz ere...

Egia da baina...

Dudarik gabe...

Jakin badakigu...




1- Gaztelanian iritzi-artikulua sortzeko galdera ezberdinak pentsatu dituzue, galdera horiek ekarriko ditugu lauki honetara mahai-ingurua prestatzeko.

2- Zuetariko bakoitzak galdera bat aukeratuko du:

Hauxe da nire galdera:

3- Gogoeta egin eta alde edo kontra zauden pentsatuko duzu, hau da, zure tesia zein den argi idatziko duzu:



Hauxe da nire tesia:



4- Tesiari eusteko zure argudioak zerrendatuko dituzu. Ez ahaztu glosategian ikasi dituzun hitzak kontuan hartzea:

Hauexek dira nire argudioak:

5- Zure aurkariak erabiliko dituen argudioak aldeaz aurretik zeintzuk diren pentsatu eta hemen idatzi; zelan erantzungo zenioke?

Hauexek izan daitezke nire aurkariaren argudioak:

Honela erantzungo diot nire aurkariari:

6- Gogora ekarriko dituzu iritzia emateko diren esamoldeak eta hitzak, gero, mahai-inguruan erabiltzeko.

Iritzia emateko esamoldeak eta hitzak

Aurkariaren iritziak erantzuteko esamoldeak



Goazen gure lana zuzentzera eta horretarako txantiloia hau erabiliko dugu aurreko lana ondo egin duzuen jakiteko. Lehendabizi, zeuk zuzendu eta gero utzizu taldekide bati zuk egindakoa hobetzeko:

	Nik		Beste batek	
	bai	ez	bai	ez
Tesiak argi adierazten du iritzia?				
Tesia esanahi osoa duen esaldia da?				
Argudioak baliokoak dira?				
Glosategian ikasitakoa gogoan izan dut?				
Argudioak ordenatuta daude garrantziaren arabera?				
Badakit ze esamolde eta hitz erabiliko ditudan tesiari eusteko?				
Aurkariari erantzuteko argudioak baliogarriak dira?				
Badakit zein esamolde eta hitz erabiliko ditudan aurkariari erantzuteko?				


Hobetzeko iradokizunak





Bazterkeriaren aurka

Baditugu mahaiaren hiru hankak, beraz gure mahaia ondo finkatuta dago. Nondik jarraituko dugu? Dakizuenez, mahai-inguruen hasieran moderatzaileak sarrera egiten du.



20. jarduera. Ongi hasi, ongi bukatu.



Ondorengo testuan bideoaren hasiera ekarri dizuegu idatzita, irakurri talde txikian eta azpimarratu aurkezlearen hitzak. Aldi berean, ondo behatuko duzue zer esaten duen eta noiz esaten duen, amaieran zuen mahai-inguruko sarreratxoa egingo duzuelako.

17. testua

Gazteek badute benetan denbora librerik?

Kaixo, arratsaldeon guztioi.

Egia da oporretan gaudela eta horregatik Bilboko Gabonetako Parkera ekarri dugu gaur Ikusikas programa. Oporretan gaudela esan dugu, ez dakit denok oporretan egongo zareten baina hemen dabilen jende guztia ondotxo konprobatu dugu oporretan dabilela. Eta oporren munduan sartu garela kontuan hartuta gaurkoan horri buruz edo hobeto esanda denbora libreari buruz solasalditxo bat egingo dugu eta horretarako sektore eta iritzi ezberdinetako jendea ekarri dugu gaur, arratsalde honetan gure mahaira eta besterik gabe goazen gure solaskideak agurtzera.

-Hemen eskuinean Cristina Gonzalez, arratsaldeon.

-Arratsaldeon.

-Ingeles ikaslea zara ezta? Kaixo.

-Ezkerrean Luisma Landaluce, irakaslea, pedagogoa eta Eusko jaurlaritzako D ereduko barnetegi baten arduraduna dugu hau, hala da ezta?

-Bai.

-Alboan Mikel Mendizabal, ikaslea, DBHko 2. maila egiten duzu zuk.

-Bai, arratsaldeon.

-Arratsaldeon, ezkerrean Mikel Garcia Gorrotxategi, zu ere irakaslea zara eta gazteen begiralea.

Hala da ezta?

-Bai.

-Beste ikasle bat, Alex Asategi, zuk ere DBHko 2. maila egiten duzu, hala da?

-Bai.

-Eta gurasoak ere hementxe dauzkagu, gurekin Zezilio Azagirre, hala da ezta?

-Bai


-Kaixo

-Bueno arratsaldeon guztioi eta ongi etorri gure solasaldi honetara eta besterik gabe, gehiago enroilatu gabe goazen harira. Ondo iruditzen zaizue?



-Bai

Denbora libreaz ari gara eta nik galdera batekin hasiko nuke gure gaurko arratsalde hau:

Badute gazteek denbora librerik?




MODERATZAILEAK

A cartoon illustration of two students sitting at a desk. The student on the left has red spiky hair and is wearing a blue hoodie, gesturing with their hand while talking. The student on the right has brown spiky hair and is wearing a green shirt, looking at the first student. They are both looking at an open book on the desk. In the background, there is a large yellow sun.



Sarrera idaztean testuko ideiak ondo lotzeko eta antolatzeko hainbat hitz berezi daude. Lauki honetara ekarri dizkizuegu erabili ditzazuen.



Amaieran, talde handian erabaki zein izan den sarrerarik egokiena. Edo beste aukera bat ere baduzue: sarrera berria idatz dezakezue talde bakoitzak idatzi dituen esaldi aproposenekin.

SARRERA



Orain antolaketari buruz arituko gara: saioa bi zatitan banatuko dugu, lehenengo zatian batzuk eztabaidan arituko zarete eta besteak ebaluatzaileak izango zarete, bigarren atalean alderantziz egingo dugu, era honetan guztiok parte hartzeko aukera izango duzue.

Nahi izanez gero mahai-ingurua bideoan grabatu ahal duzue.

Amaitu baino lehen beste erabaki batzuk hartu beharra dago egingo duzuen mahai-inguruaren antolaketan.



Eztabaidatu denon artean eta erabaki nor izan daitekeen moderatzailea, nortzuk izango diren solaskideak eta ebaluatzaileak txanda bakoitzean.

MAHAI-INGURUAREN GAIA		MODERATZAILEA	SOLASKIDEAK	EBALUATZAILEAK
Migrazioa eta munduko desberdintasunak	1. txanda			
	2. txanda			


Ondoren, bete taula hau erabaki duzuenarekin:



Badakizue mahai-inguruan erantzun beharko dituzuen galderak zeintzuk izango diren, prestatu dituzue zuen argudioak ikuspegi baten alde eta kontrako argudioak ere pentsatu dituzue zuen tesiari eusteko; sarreratxo egokiena aukeratu duzue; bakoitzaren ardura zein izango den erabaki duzue, baina badakizue zelan kokatuko zareten?

Denon artean aztertu ondorengo bi ereduak eta erantzun: zein da egokiena?

Zeroratik?






21 jarduera. Ondo egin dugu?



Mahai-ingurua hasi orduko dena prest izan behar da, pentsatu duzue zer behar duzuen dena ondo egiteko? Taldekideen artean zer prestatu behar duzuen pentsatzea merezi du.

MAHAI-INGURUA EBALUATZEKO KONTROL ZERRENDA

IZENA.....		
		MAHAI-INGURUA ONDO DAGO Arrazoiak
ZER ESAN DU		Tesia argi geratu da
		Argudio egokiak erabili ditu
		Kontra egiteko argudioak erabili ditu
		Behar bezalako esamoldeak eta hitzak erabili dira
		Gaiari eutsi dio
NOLA ESAN DU	JARRERA	Txanda errespetatu du
		Arretaz entzun du
		Aurkaria begirunez hartu du
	GORPUTZA	Ondo eserita egon da
		Naturala izan da
	AHOTSA	Ondo ulertu zaio
		Ondo ahoskatu du
		-LA / -NIK formak ondo erabili ditu
	ZER EGIN DU ONDO:	
ZER HOBETU DEZAKE:		






22 jarduera. Nola egin dut lan?



Lana amaitu duzue eta azken banakako hausnarketa egiteko unea heldu da. Unitate honetan jardunean aritu eta gero haxe esan nahi dut:



Izen-abizenak.....

Irakaslea.....

Data.....

✗ Nire zailtasunak hauek izan dira:

✗ Zailtasunak gaitzitzeko haxe egin dut:

✗ Laguntza behar izan dudaneanlagundu dit.

✗ Nire parte hartzea honelakoa izan da:

HANDIA

ERTAINA

HALA HOLAKOA

✗ Gustatu zaidana haxe izan da:

✗ Unitate honetatik kenduko nukeena haxe da:

✗ Haxe ikasi dut:

✗ Hobetu dut:

Sinadurak

Ikaslea

Irakaslea